

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Arabako Teknologia Parkean ekonomi jardueretarako zehaztapenik gabeko lurzoru urbanizagarriaren 1. sektore zentralaren sektorizatze-planaren herritarren partaidetza plana

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zinegotzi ordezkariaren 2021eko urriaren 18ko dekretu baten bitartez, Arabako Teknologia Parkean ekonomi jardueretarako zehaztapenik gabeko lurzoru urbanizagarriaren 1. sektore zentralaren sektorizatze-planaren formulazioa onetsi da, eta, horretarako, antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehaztuko dituen eta hura idazteko orientabide gisa baliatuko den aurrerapena lantzeari ekin dakiola.

Herritarren partaidetza-programa

1. Sarrera

Aurki ekingo zaio Arabako Teknologia Parkean ekonomi jardueretarako zehaztapenik gabeko lurzoru urbanizagarriaren 1. sektore zentralaren sektorizatze-plana tramitatu eta onesteko dosierriari, hura formulatzeko akordioaren haritik, behin betiko onespene eman arteko prozeduraren tramitazioak iraun bitartean bete beharko dena.

Lurzoruari eta Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5.e) artikuluan xedatzen denez, herritar guztiek dute eskubidea lurralde-antolamenduko edo hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko edozein tresna prestatzeko eta onartzeko prozeduretan eta horien ingurumen ebaluazioan benetan parte hartzeko.

Herritarren partaidetza-programa nahitaezkoa da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 108 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gauza bera dio Herritarren partaidetzaren martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua, lurralde-plangintza eta hirigintzaren arloko tramitazioaz diharduelarik.

Azkenik, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Komuna, 133. artikuluan arautzen du herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran izango duten parte-hartzea, eta ezartzen du ezen, "Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzirik izan duen etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek (sic)".

2. Herritarren partaidetza-eskubidearen edukia: norainokoa eta mugak

Hirigintza-plangintzak, kolektibitatearen interesen antolakuntzan eragiten duen edozein plan edo arau bezala, erabaki politiko bat hartzea dakar berekin, eta ahalik eta adostasunik handiena lortzen saiatzea eskatzen du.

Horregatik, demokratizatzeaz hitz egiten da legedian, plangintza izapidetzeko biderik egokiena dela esaten baita, hartara ekiditeko onesteko eskumena duen agintaritzaren mende egon dadila, bakar-bakarrik, berorren formulazioa.

Hirigintza-jardueraren beraren printzipiotzat jotzen da herritarren partaidetza hirigintza-zuzenbidean, eta administrazioaren betebeharra da eskubide hori baliatzerik izan dadin beharrezko diren bideak finkatzea.

Nolanahi ere, ordezkari-tza-demokraziaren osagarri gisa ulertu beharra dago hori, ez alternatiba gisa, ordezkari-tza kontrolatzeko sistema hobetzea ahalbidetzen duen neurrian.

Beraz, hirigintza legedian aurreikusitako herritarren partaidetza, eman daitekeen era guztietan, boterearen jarduketa publikoa kontrolatzeko tresna bat da eta ez kontrabotere bat. Partaidetzaren helburua administrazioari erabaki ahal izateko elementuak ematea da, baina erabakia halabeharrez eskumena duten organoei dagokie, nahiz eta horiek beti izan beharko dituzten kontuan alegazioak eta iradokizunak aztertu beharreko aukera bat gehiago bezala.

3. Partaidetza-programaren helburuak

Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 legeak zioen adierazpenean jasotzen du legearen helburuetako bat dela herritarren partaidetza-eskubidea bermatzea, egiturazko antolamendu-planetan nahitaezkoak diren partaidetza-programen eta hainbat udalerritan nahitaezkoa den Planeanamenduaren Kontseilu Aholkulariaren bidez.

Era berean, I. kapituluko II. Atalean araututako hirigintzaren printzipio orokorren artean herritarren partaidetza jasotzen da, eta 8. artikulua eskaintzen zaio, artikuluko 1. atalean hau adierazten baita: "Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzeko, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da".

Gainera, bereizi egin dira herritarren partaidetza-eskubidearen printzipioa (8. artikulua) eta horrekin lotura izan arren inolaz ere gauza bera ez den jendaurreko informazioaren printzipioa (9. artikulua), esan nahi baitu, lehenik eta behin, partaidetza ez dagoela murrizterik jendaurreko erakustaldiaren eta informazioaren ohiko tramite jakinetara.

Partaidetza-programaren helburu nagusia da sektorizatze-planaren formulazio, izapidetze eta onespen faseetan herritarren partaidetza-tresnak txertatzea, eta ez bakarrik legeak eskatzen dituenak edo formalki bete behar direnak, baizik eta partaidetza eraginkorragoa bermatzen duten tresna aktibo eta dinamikoak.

Diseinatutako partaidetza-prozesuaren azken helburua da gizarte esperientziaren ezagutza eta ezagutza tekniko-administratiboa batzea, eta, hartara, sektorizatze-plana guztion dokumentua izan dadila lortzea.

Zehazki, helburu hauek lortzeko ahaleginak egingo dira herritarren partaidetza-programaren bitartez:

- Hirigintzako dokumentuaren berri ematea, bere fase ezberdinetan, parte-hartzea erabat lotuta baitago Planaren egikaritzaren ezagupen publikoari.
- Plana ezagutu eta berari buruzko informazioa jasotzeko herritarren eskubidea erraztea.
- Sektorizatze-plana egin eta tramitatzeko hiritarrek duten parte-hartzeko eskubidea sustatzea.
- Neurri handi batean tekniko den dokumentua hiritarrentzat eskuragarri eta ulertzeko erraz egitea.
- Hiritarrek hirigintza arloan izan ditzaketen asmoak, kezak eta ardurak bideratzea.
- Aukera ematea hiritarrei plangintzaren prozeduran parte hartzeko, beraien iritzia emanaz bai Sektore Planak proposatutako lurraldearen okupazioari buruz, bai antolaketa eremu ezberdinei eragiten dien proposamen eta neurri zehatzei buruz.

— Era xehatuan, parte-hartze prozedurak sustatzeko beharrari buruzko lege-agindua betetzea.

— Era berean, Herritarren partaidetza-programak helburu bezala dauka indarreko legedian dokumentuaren publikitateari buruz aurreikusitako tresna eta neurri zehatzak betetzea.

— Indarreko legediaren agindu zehatzak betetzea, esateko, hirigintza plana baliabide telematikoen bitartez argitaratzeko.

4. Parte hartzeko estrategiak

4.1. Parte hartzeko estrategia zehatzak.

Aipatutako helburuak estrategia orokor bati lotuta daude, hau da, hiritar, eragile eta erakunde gehiena inplikatzeko sektorizatze-planaren izapidetzean. Horren ondorioz, estrategia zehatz hauek jarraitu nahi dira:

— Dokumentuaren idazketa eta asmaketa lehen faseetatik eskumena duten lurralde-administrazioak tartean sartu.

— Herritarrak ahaldundu, bai bere forma asoziatiboan, baita orokorrean ere, eta bereziki, arreta erabaki zentroetatik tradizioz urrundu izan diren herritarren multzoetan jarriz, genero, gizarte-maila edo gizarte-bazterketa egoerak direla medio.

— Hirigintza-kultura sustatu udalerriko auzokideen artean, era horretan lege-hauste eta hirigintza diziplina urraketa egoerak saihestu eta zuzentzeko.

— Adostasun maila handia lortu, ez bakarrik hiritarren artean, baita ere politiko eta erakunde artean.

— Parte hartzean gardentasun maila altua lortzea, informazio publikoaren kontzeptutik haratago joanez, ITak erabiliz informazio foro eta iritzi hartu-eman eraginkorrak lortuz, eta parte hartzea bermatuz, baita aparteko gizarte-egoeretan ere, gertatu den alarma egoera esaterako.

4.2. Partaidetza-prozesuaren eremuak.

Parte hartze prozesu batek aurre hartu behar duen erronketako bat da jasotako informazioa edukiontzi logikoetan egituratzea, eta, hori baino gehiago, informazio zehatza jaso dezaketen tresnak diseinatzea, horiek hirigintzaren diseinuaren funtseko oinarri izan daitezten.

Arabako Teknologia Parkean ekonomi jardueretarako zehaztapenik gabeko lurzoru urbanizagariaren 1. sektore zentralaren sektorizatze-planaren kasuan, oso zehaztuta daude lurralde-eremua nahiz jarduera-esparrua eta erabilerak.

5. Sektorizatze-planaren berezitasuna

Herritarren partaidetzaren tramitea tresna zehatz horretara egokitzea legitimatzen duten zenbait ezaugarri ditu sektorizatze-planak.

Horietako lehenengoa da sektorizatze-planak ez dakarrela berekin inongo berrikuntza edo aldakuntzarik, ezta indarrean dagoen HAPOn aurreikusitako antolamenduaren alkuntzarik ere. Hortaz, esparru zahar bat da, lehendik aintzat hartua, jarduera ekonomikoak burutzeko, orain garatu beharra dagoena.

Bigarren ezaugarria da sektorizatze-plan horren dosierrari alde aurreko tramitazio bat egin zitzaioala, indarrean dagoen araudiak agintzen duenaren ildotik (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 93. artikulua), zeinen azken buruan ALHAOn argitaratu baitzen berorren jendaurreko informazioaren tramitearen hasiera, 2018eko abuztuaren 8an. Jendaurreko informazioaren tramitearen objektu den dokumentazioaren norainokoa, edukia eta xehetasun-maila aipatutako 93. artikuluko 2. atalean definitzen da; izan ere, sektoretan banatzeko ekimenaren hirigintza-, teknika-, ekonomia-, ingurumen- eta lege-bideragarritasuna behar besteko zehaztasunez deskribatu, arrazoitu eta justifikatu behar da, lege horren arabera sektorizatze-planen edukia diren zehaztapen guztiei dagokienez.

Hirugarren ezaugarri garrantzitsua da orain sektorizatzeko-planaren bidez garatu nahi den eremua dagoeneko jasota eta araututa dagoela indarrean dagoen HAPOn Berrikuspenaren dokumentazioan bertan, eta, hortaz, aurrerapenaren dokumentuan jasotako bi alternatibetan, zein, aldi berean, berriki azaldu baita, eta partaidetza publikorako aukera eman, edukiari dagokionez.

6. Edukia

Sektorizatzeko-planarekin zerikusia duten herritarren partaidetza planaren faseak ondoren zehazten dira, eta udal-teknikariak arduratuko dira horietaz.

1. fasea: Sektorizatzeko-planaren aurrerapenaren idazkuntzaren aurreko herritarren partaidetzaren mekanismoak:

Nahitaez burutu beharreko ekintzak:

– Sektorizatzeko-plan tramitera onartu eta formulatzeko akordioan onetsiko da landu, tramitatu eta onesteko prozesuan jarraitu beharreko herritarren partaidetza-programa.

Ekintza osagarriak:

– Kontsulta publikoa, Udalaren webgunearen edota Arabako Teknologia Parkearenaren bitartez, gutxienez hamabost egun naturaleko epean, zeinetan herritarren eta elkarten iritzia jasoko baita, hauen inguruan:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Kontsulta publiko hori halako moldez egingo da, non herritarrek eta elkarteek beren iritzia emateko aukera izango baitute. Horretarako, argibide-dokumentu bat jarriko da haien eskura; dokumentu argia, zehatza, lau puntu horien inguruan posizionatzeko beharrezko den informazio guztia biltzen duena.

Kontsulta publikoaren berri Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da. Egindako argitalpenaren egiaztapena dossierrean jasoko da.

– Kontsulta publikoa gauzatzearen ondorioz izan diren iritziei buruzko txosten zehatzak, sektorekatze-planaren aurrerapenaren jendaurreko erakustaldian aurkezten den oroitidazkian sartu beharrekoak.

2. fasea: Herritarren partaidetzaren mekanismoak, Sektorizatzeko-planaren aurrerapenaren jendaurreko erakustaldian.

Nahitaez burutu beharreko ekintzak:

– Sektorekatze-planaren aurrerapena bi hilabeteko aldi jendaurrean jartzeko erabakia — iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko —. ALHAOn eta lurraldean zabalkunde edo zirkulaziorik handiena duen egunkariren batean jarriko da jendaurrean, 2/2006 Legearen 90.3 artikulua ildotik. Udalaren ohiko kanalak baliatuz egingo da erakustaldiaren publikizitatea.

– Iradokizunak eta alternatibak jasotzea.

– Jendaurrean jartzearen ondorioz izan diren iradokizunak eta alternatibei buruzko txosten zehatzak, hasierako onespena emateko aurkezten den sektorizatzeko-planaren agirian sartu beharrekoak.

Ekintza osagarriak:

– Jendaurreko azalpen-saioa, idatzi duten teknikarien nahiz udal teknikarien ardurapean. Batera egingo da Miñao, Miñaogutxia, Erretana eta Mendigurengo administrazio-batzarrentzat, Udalak adierazten duen egunean eta orduan, entitate horietakoren baten lokaletan. Hauek azalduko dira saio horretan: sektorekatze-planaren aurrerapenaren edukia, alternatibekin, dokumentua kontsultatzeko moduak, bilera partikularretarako hitzordua eskatzeko aukera, iradokizunak eta alternatibak aurkezteko modua, entregatzeko tokiak eta epeak. Saioaren bukaeran galdetzeko aukera izango da. Jendaurreko erakustaldia bukatu baino gutxienez hilabete lehenago egingo da saio hori. Azalpen-bilkuraren berri Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da. Egindako argitalpenaren egiaztapena dosierrean jasoko da.

– Jarraitutako partaidetza-prozesuari buruzko laburpen-txostena, hasierako onespena emateko aurkezten den sektorizatze-planaren agirian sartu beharrekoak.

3. fasea: Herritarren partaidetzaren mekanismoak, sektorizatze-planari hasierako onspena eman ondoren.

Nahitaez burutu beharreko ekintzak:

– Sektorekatze-planaren hasierako onspena, eta jendaurrean jartzea, ALHAOn eta lurraldean zabalkunde edo hedapenik handiena duen egunkariaren batean argitaratuz —berrogeita bost egun baliioduneko aldia, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik—, eta, halaber, udalerrian hedapenik handiena duen egunkarietako batean argitaratzea, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27.1 artikuluaaren ildotik. Udalaren ohiko kanalak baliatuz egingo da erakustaldiaren publizitatea.

– Alegazioak jasotzea.

– Hasierako onspena eman ondoren jendaurrean jartzearen ondorioz izan diren alegazioei buruzko txosten zehatzak, behin-behineko onspena emateko aurkezten den sektorizatze-planaren testu bateginean sartu beharrekoak.

Ekintza osagarriak:

– Jendaurreko azalpen-saioa, idatzi duten teknikarien nahiz udal teknikarien ardurapean. Udal lokaletan eta Udalak adieraziten duen egunean eta orduan egingo da. Hauek azalduko dira saio horretan: sektorekatze-planaren norainokoa eta edukia, dokumentua kontsultatzeko moduak, bilera partikularretarako hitzordua eskatzeko aukera, alegazioak egiteko modua, horiek entregatzeko lekuak eta epeak. Saioaren bukaeran galdetzeko aukera izango da. Jendaurreko erakustaldia bukatu baino gutxienez 15 egun natural lehenago egingo da saio hori.

Azalpen-bilkuraren berri Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da. Egindako argitalpenaren egiaztapena dosierrean jasoko da.

– Jarraitutako partaidetza-prozesuari buruzko laburpen-txostena, behin-behineko onspena emateko aurkezten den sektorizatze-planaren testu bateginean sartu beharrekoak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 26an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE